

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARABAKO LAUTADAKO KUADRILLA

Hasierako onespena ematea 2019ko aurrekontuari

Kuadrillaren batzarrak, 2018ko abenduaren 19ko aparteko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea 2019ko aurrekontu orokorraren espedienteari.

Bat etorri otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Toki erakundearen aurrekontuei buruzkoak, 15. artikuluan ezarritakoarekin, espediente hori hamabost egunez izango da jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote kuadrillaren batzarrari.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onetsizat joko da.

Guztiekin jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Agurain, 2018ko abenduaren 21a

Lehendakaria

ANA GOROSPE LARREA